**DONIBANEKO (PASAIA) SANEAMENDU PROIEKTUKO 1. FASEKO (BONANTZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA) OBRAK EGITEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN FORMALIZAZIOA.**

Alde batetik, **JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaritzan, egintza honetarako berariaz baimendua Diputatuen Kontseiluaren 2023ko martxoaren 7ko erabakiaz.

Bestetik, Antonio Aiz Salazar jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia den aldetik, eta Agentziaren estatutuetako 7.2.g) artikuluak ematen dion eskumena betez.

Bestetik, Jaione Hervás Sáez de Arregi, Añarbeko Uren Mankomunitatearen lehendakaria, erakunde horren legezko ordezkaritzan, egintza honetarako berariaz baimendua, Batzarrak 2023ko maiatzaren 31eko bileran hartutako erabakiaz.

Bestetik, Izaskun Gomez Cermeño, Pasaiako Udaleko alkatea, 2023ko maiatzaren 4an eginiko bilkuran udalbatzak hartutako akordioaren bidez egintza honetarako berariaz baimendua.

Bi aldeek lankidetza hitzarmen hau sinatzeko lege gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri; horrenbestez,

**ADIERAZTEN DUTE**

**LEHENENGO.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. paragrafoen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurraldearen barruan, ur-aprobetxamenduen gaineko eskumen esklusiboa, urak oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan igarotzen direnean, bai eta Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen ez diren edo beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten herri-lanen gainekoa ere.

**FORMALIZACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DEL PROYECTO DE SANEAMIENTO DE DONIBANE (PASAIA), 1ª FASE: PASEO DE BONANZA – PLAZA DE SANTIAGO.**

De una parte, **D. JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA**, diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, autorizado expresamente para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada el 7 de marzo de 2023.

De otra parte, D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

De otra parte, Dña. Jaione Hervás Sáez de Arregi, en su condición de Presidenta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, en representación legal de la misma y debidamente facultada para este acto por acuerdo de su Junta de 31 marzo de 2023.

De otra parte, Dña. Izaskun Gomez Cermeño, Alcaldesa del Ayuntamiento de Pasaia, autorizada expresamente para este acto por acuerdo del Pleno Municipal de fecha 4 de mayo de 2023.

Los intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de colaboración y a tal efecto

**EXPONEN**

**PRIMERO.-** Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuak onartu zuen Transferentzien Batzorde Mistoaren akordioa, Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen arloko eginkizunak eskualdatzekoa. Dekretu horren bidez, besteak beste, tokiko korporazioei laguntzak emateko eginkizunak eta baliabideak transferitu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak egiteko, baldin eta lan horiek haien interesekoak badira, beste autonomia-erkidego bati eragiten ez badiote eta Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen ez badira legez.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se han transferido las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

**BIGARREN.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 20ko 16/2020 Foru Dekretuak aitortzen du, besteak beste, obra hidraulikoen arloko eginkizunak eta eskumenak direla Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluaren a) 10 eta b) 4 apartatuetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legetik eratorritakoak, hau da, azpiegitura hidraulikoei dagozkien obra publikoak eta ur kontinental publikoen eta horien berezko ibilguen, ur-bazterren eta zortasunen zaintza. Hori guztia, foru aldundiek udal mailako edo udalez gaindiko zerbitzu publikoei dagokienez duten zereginetik eratorritakoekin batera, ur hornidurari eta saneamenduari, uholdeak prebenitzeko obrei eta hiri hondakinei dagokienez.

**SEGUNDO.-** Que, en lo referido a la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Decreto Foral 16/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, reconoce, entre otras, que en materia de obras hidráulicas, las funciones y competencias son las que resultan de los apartados a) 10 y b) 4 del artículo 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y las derivadas de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco, esto es: obras públicas relativas a infraestructuras hidráulicas y policía de aguas públicas continentales y de sus cauces naturales, riberas y servidumbres. Todo ello junto con las que derivan del papel de las diputaciones respecto de los servicios públicos de carácter municipal o supramunicipal en materia de abastecimiento y saneamiento de aguas, obras de prevención de inundaciones y residuos urbanos.

Zehazki, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 20ko 16/2020 Foru Dekretuaren 1. artikuluak, departamentuaren eginkizun eta eskumenei buruzkoak, h) letran honako hau esleitzen dio: *«Lurraldeko hornidura eta saneamendu sarea osatzea»*.

En concreto, el artículo 1, del Decreto Foral 16/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, relativo a las funciones y competencias del departamento, en la letra h) le atribuye “*Completar la red de abastecimiento y saneamiento del territorio”.*

**HIRUGARREN.-** 2007ko azaroaren 23an, EAEko Administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak sinatu zuten Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2003-2006 aldian saneamendu azpiegiturak eraikitzeko Esparru Akordioa 2007-2011 aldira luzatzeko akordioa.

**TERCERO.-**Que el 23 de noviembre de 2007 la Administración de la CAPV, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi suscribieron el Acuerdo de ampliación al periodo 2007-2011 del Acuerdo Marco para la construcción de infraestructuras de saneamiento

SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en el periodo 2003-2006.

Akordio horretan jasotako obren zerrendan, Pasai Donibaneko saneamendu proiektua agertzen zen, gaur egun Pasaiako badia kutsatzen duten isurketak konpontzea helburu zuena. Sinatu zenetik hamabost urte igaro diren arren, zenbait obra ez dira egin, hala nola Donibanekoa.

En la relación de obras incluidas en dicho acuerdo figuraba el Proyecto de saneamiento de Pasai Donibane, cuyo objetivo era dar solución a los vertidos que actualmente contaminan la Bahía de Pasaia. Pese a haber transcurrido quince años desde su firma, varias obras no han llegado a ejecutarse, como es el caso de Donibane.

Bestalde, indarrean dagoen plangintza hidrologikoaren helburuak berrikusi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziak, Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Pasaiako Udalak beharrezkotzat jo dute obra horiek sustatzea, eta, horretarako, lankidetza esparru bat proposatu dute, obra horiek gauzatu eta finantzatzeko.

Por otro lado, revisados los objetivos de la planificación hidrológica en vigor, la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Agencia Vasca del Agua, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe y el Ayuntamiento de Pasaia consideran necesario impulsar la ejecución de dichas obras, para lo que proponen un marco de colaboración donde se contemple su ejecución y financiación.

Donibaneko saneamenduaren soluzio integralak aurreikusten du kolektore-sare bereizle bat egitea, horrela, euri-urak, orain arte bezala, zuzenean itsasora hustuko dira, eta ur beltzak, berriz, saneamendu orokorrarekiko lotura punturaino garraiatuko dira. Kolektoreak Puntetako pasealekuko arkuen eraikinetik abiatzen dira eta Donibane zeharkatzen dute eskuragarri dauden isurketak jasoz. Azkenik, Bizkaia plazaraino iristen dira, eta bertan ponpaketa-estazioa egingo da, gaur egun Mankomunitateak, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA bere sozietate publikoaren bidez ustiatzen duen hondakin uren sarera bulkatzeko eta konektatzeko.

La solución integral del Saneamiento de Donibane prevé la ejecución de una red separativa de colectores, de forma que las aguas pluviales seguirán evacuando directamente al mar, mientras que las aguas fecales transportarán los vertidos hasta el punto de conexión con el saneamiento general. Los colectores parten del edificio de los arcos sito en el Paseo de Puntas y recorren Donibane recogiendo a su paso los vertidos accesibles. Finalmente, llegan hasta la plaza Bizkaia en la que se ejecutará la estación de bombeo para su impulsión y conexión a la red aguas residuales que actualmente explota la Mancomunidad, a través de su sociedad pública Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.

Zenbait zalantza sortu dira obren bideragarritasunaren inguruan, espazio konplexuenen kasuan. Hori dela eta, egokitzat jo da proiektua xehatzea eta, lehenik eta behin gauzatzea DONIBANEKO (PASAIA) SANEAMENDUA, 1. FASEA: BONANZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA proiektua, zailtasun gutxien duen zatia baita. Horri esker, beharrezko hobekuntzak egin ahal izango dira ondorengo faseak behar diren bermeekin gauzatzeko, 1. fasean lortutako esperientzian oinarrituta.

La viabilidad de la ejecución de las obras en los espacios más complicados plantea ciertas dudas, por lo que se ha considerado oportuno desglosar el proyecto y ejecutar en primer lugar el PROYECTO DE SANEAMIENTO DE DONIBANE (PASAIA), 1ª FASE: PASEO DE BONANZA – PLAZA DE SANTIAGO, que se considera el tramo con menos dificultades. Esto permitirá realizar las mejoras necesarias para abordar la ejecución de posteriores fases con las debidas garantías en base a la experiencia obtenida en la Fase 1.

Saneamenduaz gain, proiektuan beste udal-zerbitzu batzuk ere sartzen dira, hala nola elektrizitatea, argiteria publikoa, telefonia eta edateko ura. Era berean, obrekin egungo zoladura hein handi batean apurtuko denez, kaleak berrurbanizatzea aurreikusi da.

Además del saneamiento, en el proyecto se incluyen otros servicios municipales como electricidad, alumbrado público, telefonía y agua potable. Igualmente, y dado que con las obras se va a romper en gran medida la pavimentación

SINAC5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

**LAUGARREN.-** Obren aurrekontua 1.700.000 eurokoa da, BEZa barne. Lanak egiteko epea 8 hilabetekoa da, baina herriaren izaera turistikoa dela eta, lanak aldi garrantzitsuenetan etetea aurreikusten da. Beraz, epe osoa 13 hilabetekoa izango da. Obrak 2023ko urrian hastea aurreikusten da, eta, beraz, 2024ko azaroan amaitzea.

Obraren finantzaketa honako ehuneko hauen arabera egingo da:

| | |
|---|---|
| Pasaiako Udala | %35 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | %30 |
| Uraren Euskal Agentzaia | % 25 |
| Añarbeko Uren Mankomunitatea | % 10 |

**BOSGARREN.-** Aurreko guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Pasaiako Udalak, Gipuzkoako Uren Agentziak eta Añarbeko Urak sozietateak LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea adostu dute, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak, 47. artikuluan eta hurrengoetan, eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 57. artikuluetan diotenarekin bat etorriz. HITZARMENAk ondoko klausula hauek izango ditu:

**KLAUSULAK**

**Lehena.- Hitzarmenaren xedea.**

Hitzarmenaren xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bitartez, Pasaiako Udalaren, Uraren Euskal Agentziaren eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen arteko lankidetzaren baldintzak arautzea, DONIBANEKO (PASAIA) SANEAMENDUA, 1. FASEA: BONANZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA proiektuko obrak gauzatzeko.

**Bigarrena.- Gauzatu beharreko jarduketak.**

Honako klausula hauetan ezarritako baldintzetan gauzatu beharreko jarduketak DONIBANEKO (PASAIA) SANEAMENDUA, 1. FASEA: BONANZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA

existente, se ha previsto la reurbanización de las calles.

**CUARTO.-**Que el presupuesto de las obras se eleva a 1.700.000 euros, IVA incluido. El plazo estricto de ejecución es de 8 meses, pero dado el carácter turístico de la localidad se prevé suspender la ejecución de las obras durante los períodos más sensibles, por lo que el plazo total se eleva a 13 meses. Se prevé que las obras comiencen en octubre de 2023 y que finalicen, por tanto, en noviembre de 2024.

La financiación de la obra se realizará en base a los siguientes porcentajes:

| | |
|---|---|
| Ayuntamiento de Pasaia | 35% |
| Diputación Foral de Gipuzkoa | 30% |
| Agencia Vasca del Agua | 25% |
| Mancomunidad de Aguas del Añarbe | 10% |

**QUINTO.-** Que, por todo lo expuesto, y de conformidad con lo señalado en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como en el artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Pasaia, la Agencia Vasca del Agua y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe acuerdan formalizar el presente CONVENIO que se regirá por las siguientes,

**CLÁUSULAS**

**Primera.- Objeto del Convenio.**

Es objeto del convenio regular las condiciones de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, el Ayuntamiento de Pasaia, la Agencia Vasca del Agua y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, para la ejecución de las obras del proyecto de SANEAMIENTO DE DONIBANE (PASAIA), 1ª FASE: PASEO DE BONANZA – PLAZA DE SANTIAGO.

**Segunda.- Actuaciones a ejecutar.**

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las correspondientes al proyecto de “SANEAMIENTO DE DONIBANE (PASAIA), 1ª

SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

proiektuari dagozkionak dira. Proiektua IDOM CONSULTING AND ENGINEERING ARCHITECTURE SAUk idatzi zuen 2022ko irailean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarentzat.

FASE: PASEO DE BONANZA – PLAZA DE SANTIAGO", redactado por IDOM CONSULTING AND ENGINEERING ARCHITECTURE, S.A.U. en septiembre de 2022 para el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Saneamenduaz gain, proiektuan beste udal-zerbitzu batzuk ere sartzen dira, hala nola elektrizitatea, argiteria publikoa, telefonia eta edateko ura. Era berean, obrekin egungo zoladura hein handi batean apurtuko denez, kaleak berrurbanizatzea aurreikusi da.

Además del saneamiento, en el proyecto se incluyen otros servicios municipales como electricidad, alumbrado público, telefonía y agua potable. Igualmente, y dado que con las obras se va a romper en gran medida la pavimentación existente, se ha previsto la reurbanización de las calles.

Lanak egiteko epea 8 hilabetekoa da, baina herriaren izaera turistikoa dela eta, lanak aldi garrantzitsuenetan etetea aurreikusten da. Beraz, epe osoa 13 hilabetekoa izango da. Obrak 2023ko urrian hastea aurreikusten da, eta, beraz, 2024ko azaroan amaitzea.

El plazo estricto de ejecución de las obras es de 8 meses, pero dado el carácter turístico de la localidad se prevé suspender la ejecución de las obras durante los períodos más sensibles, por lo que el plazo total se eleva a 13 meses. Se prevé que las obras comiencen en octubre de 2023 y que finalicen, por lo tanto, en noviembre de 2024.

**Hirugarrena.- Finantzaketa.**

Obren aurrekontua 1.700.000 euro da, BEZa barne. Obraren finantzaketa honako ehuneko eta urteroko hauetan oinarrituta banatzen da:

**Tercera.- Financiación.**

El presupuesto de las obras se eleva a 1.700.000 euros, IVA incluido. Se reparte la financiación de la obra en base a los siguientes porcentajes y anualidades:

| ENTITATEA / ENTIDAD | PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN | ZENBATEKOA IMPORTE | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|
| PASAIAKO UDALA / AYTO. PASAIA | 35% | 595.000 € | 148.750 € | 446.250 € |
| GFA / DFG | 30% | 510.000 € | 127.500 € | 382.500 € |
| URA | 25% | 425.000 € | 106.250 € | 318.750 € |
| AÑARBE | 10% | 170.000 € | 42.500 € | 127.500 € |
| | **100%** | **1.700.000 €** | **425.000 €** | **1.275.000 €** |

**Laugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak.**

Hitzarmen honen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak betebehar hauek izango ditu:

a) Dagokion eraikuntza proiektua aurkeztea eta onartzea.

b) Obrak kontratatu eta gauzatzea.

c) Lanak teknikoki zuzendu eta ikuskatzea.

**Cuarta.- Obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

En virtud del presente convenio, la Diputación Foral de Gipuzkoa se obliga a:

a) Aportar y aprobar el Proyecto constructivo correspondiente.

b) Contratar y ejecutar las obras.

c) Dirigir e inspeccionar técnicamente la

SINAC5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

d) Lehenengo eta behin, hileko ziurtagirien kostua bere gain hartzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bitartez, aurreikusitako obren aurrekontu gisa hasiera batean konprometitutako zenbatekoari dagokion gastua 1.700.000 eurokoa da (BEZa barne), eta horietatik Gipuzkoako Foru Aldundiak gastuaren % 30 hartuko du bere gain, hau da, 510.000 € guztira. Obra egiteko, 2023rako laurehun eta hogeita bost mila euroko (425.000 €) ordainketa kreditu bat aurreikusten da, 1.0320.200.662.00.02.2023 aurrekontu partidaren kargura, eta 2024rako milioi bat berrehun eta hirurogeita hamabost mila euroko (1.275.000 €) konpromiso kreditu bat, 5.0320.200.662.00.02.2024 aurrekontu partidaren kargura.

**Bosgarrena.- Uraren Euskal Agentziaren, Añarbeko Uren Mankomunitatearen eta Pasaiako Udalaren betebeharrak**

Hitzarmen honen arabera, Uraren Euskal Agentziak, Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Pasaiako Udalak betebehar hauek izango dituzte:

Aurrekontu baliabideak izatearen ziurtagiria aurkeztea.

Gipuzkoako Foru Aldundiari honako zenbateko hauek ematea:
Uraren Euskal Agentziak (% 25): 425.000 €
Añarbeko Urak (% 10): 170.000 €
Pasaiako Udalak (% 35): 595.000 €, 09.712.01.151.02 aurrekontu partidaren kargura

Zenbateko horiek arian-arian ordainduko zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, obrak iraun bitartean onartzen diren hileko ziurtagirietarako eskatzen direnetik gehienez ere 30 eguneko epean.

**Seigarrena.- Pasaiako Udalaren betebehar espezifikoak**

Hitzarmen honen arabera Pasaiako Udalak betebehar hauek izango ditu:

ejecución de las obras.

d) Asumir en primera instancia el coste de las certificaciones mensuales.

El gasto correspondiente al importe que compromete inicialmente la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, como presupuesto de las obras previstas, asciende a 1.700.000 euros (IVA incluido), de los cuales la Diputación Foral de Gipuzkoa asumirá el 30% del gasto, es decir un total de 510.000 €. Para realizar la obra, se prevé un crédito de pago para el año 2023 de cuatrocientos veinticinco mil euros (425.000 €) con cargo a la partida presupuestaria 1.0320.200.662.00.02.2023 y un crédito de compromiso para 2024 de un millón doscientos setenta y cinco mil euros (1.275.000 €) con cargo a la partida presupuestaria 5.0320.200.662.00.02.2024.

**Quinta.- Obligaciones de la Agencia Vasca del Agua, la Mancomunidad de Aguas Añarbe y el Ayuntamiento de Pasaia**

En virtud del presente convenio, la Agencia Vasca del Agua, la Mancomunidad de Aguas Añarbe y el Ayuntamiento de Pasaia, se obligan a:

Presentar certificado de disponibilidad presupuestaria.

Aportar a la Diputación Foral de Gipuzkoa los importes que se detallan a continuación:
Agencia Vasca del Agua (25%): 425.000 €
Aguas del Añarbe (10%): 170.000 €
Ayuntamiento de Pasaia (35%): 595.000 €, con cargo a la partida presupuestaria 09.712.01.151.02.

Dichos importes se irán abonando progresivamente a la Diputación Foral de Gipuzkoa en un plazo máximo de 30 días desde que sean requeridos con ocasión de las certificaciones mensuales que se aprueben durante la obra.

**Sexta.- Obligaciones específicas del Ayuntamiento de Pasaia**

En virtud del presente convenio, el Ayuntamiento de Pasaia, se obliga a:

SINAC5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

a) Obrak egiteko aldi baterako edo behin betiko behar diren lurrak bere kontura eskuratzea.
b) Obrak kontratatzeko behar diren lizentziak, baimenak eta aurretiazko gainerako administrazio izapideak lortzea (URAren baimena, Kostalde Zerbitzuaren edo Portu Agintaritzaren baimena, udal lizentziak, etab.).
c) Obrak hartu ondoren, ustiapenean jartzea dagokien zerbitzua eman dezaten, eta instalazioak behar bezala kontserbatzea, helburu horretarako beharrezkoak diren aurrekontu aurreikuspenak egiteko eta behar diren gainerako neurriak hartzeko konpromisoa hartuta.
d) Esku-hartze horren problematika berezia dela eta, Udalak bere gain hartuko du herritarren eta obra egikaritzaileen arteko bitartekaritzako, herritarren arretako eta koordinazioko rola, eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

a) Obtener a su cargo los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras.
b) Obtener las licencias, autorizaciones, y los demás trámites administrativos previos y necesarios para la contratación de las obras (autorización de URA, autorización de Costas o de la Autoridad Portuaria, licencias municipales, etc).
c) Poner las obras en explotación para la prestación del servicio a que se destinan, una vez recepcionadas, y a conservarlas debidamente, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.
d) Dada la problemática especial de esta intervención, el Ayuntamiento asumirá un rol de intermediario, de atención ciudadana y de coordinación, entre la ciudadanía y la ejecución de estas obras, para lo cual habilitará los medios humanos y materiales que sean necesarios.

**Zazpigarrena.- Obrak finantzatu eta ordaintzea.**

Kontratuak izan ditzakeen gorabeherek esleipen-prezioari eragiten badiote (hala nola gehiegizko likidazioak, prezioen berrikusteak, zerga-tipoen aldaketak eta abar), edo obretan aldaketak egiten badira eta obra osagarriak edo gehigarriak egiten badira, horiek guztiak alderdi batek zein besteak finantzatuko dituzte, hirugarren, laugarren eta bosgarren klausuletan aipaturiko portzentajeen arabera.

**Séptima.- Financiación y pago de las obras.**

Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como exceso en liquidación, revisiones de precios, modificación de tipos impositivos etc.), así como los modificados de obra y las obras accesorias o complementarias, serán financiados en los porcentajes indicados en las cláusulas tercera y cuarta y quinta por cada una de las partes.

**Zortzigarrena.- Jarduketen jarraipen batzordea.**

1.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da. Erakunde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute, alderdi sinatzaileek izendatuko dituztenak. Eginkizun hauek izango dituzte:

a) Hitzarmenean aurreikusitako jarduerak behar bezala gauzatzen direla zaintzea, eta elkarri informazioa emateko eta konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztea.

b) Kasu bakoitzak eskatzen dituen izapideak azkar egitea oztopatzen duten trabak kentzen laguntzea.

**Octava.- Comisión de seguimiento de las actuaciones.**

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por dos representantes de cada entidad, que serán designados por las partes firmantes, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

c) Hitzarmen honen xede diren jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurrien berri ematea eta proposatzea.

d) Hitzarmena interpretatu eta gauzatzean sor litezkeen arazoak konpontzen saiatzea.

e) Adostasuna ematea kontratuaren esleipen-prezioa % 10 baino gehiago aldatzea dakarten aldaketa proposamenei buruz. Aitzitik, aldaketa lehen adierazitako ehunekoa baino txikiagoa bada, horren berri emango zaio batzorde honi.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

**Bederatzigarrena.- Aldaketak.**

Hitzarmen honen edozein aldaketa jakinera eman beharko da eta parte hartzaile guztien aurretiazko oniritzia jaso beharko du nahitaez, bakoitzaren organo eskudunak onartuta.

**Hamargarrena.- Indarraldia, iraungitzea eta ez-betetzeak.**

Hitzarmenak izenpetzen denetik aurrera izango du indarra eta behartasuna, parte hartzen duten alderdientzat, eta iraupena lau urtekoa izango da. Hitzarmenaren indarraldia amaitu aurretik, sinatu duten partaideek lau urtez luzatzeko erabakia hartu dezakete, ahobatez, edo objektua gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzen kontratazioaren likidazioa egin arte.

Bere xedea osatzen duen ekintzak betetzen direnean iraungiko da hitzarmena, edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoko 40/2015 legeak, urriak 1ekoak, bere 51 artikuluan jasotzen dituen

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

e) Prestar conformidad a las propuestas de modificación que impliquen una alteración del precio de adjudicación del contrato en cuantía superior al 10%. Por el contrario, si la modificación es inferior al porcentaje antes indicado, se dará cuenta de la misma a esta comisión.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórums de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Novena.- Modificaciones.**

Cualquier modificación del presente convenio deberá comunicarse y contar con el visto bueno previo de las partes intervinientes y ser aprobada por los órganos correspondientes de las mismas.

**Décima.- Periodo de vigencia, extinción e incumplimientos.**

El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, estableciéndose una duración de cuatro años. En cualquier momento antes de la finalización del plazo de vigencia, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o hasta la liquidación de la contratación de las actuaciones necesarias para su ejecución.

El convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución del artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen

SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

amaitzeko zioak ematen direnean.

Jurídico del Sector Público.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdien esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea, alderdietako edozeinek hala eskatuta, idatziz eta modu ziurtatuan, hilabeteko gutxieneko epean. Hitzarmena hausten bada, alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren, baita horiek egin ondoren -–egingo balira – nola emango diren ere.

En caso de incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras, a exigir su estricto cumplimiento, o solicitar la resolución del convenio, previa denuncia por cualquiera de las partes mediante comunicación escrita fehaciente con un plazo de antelación de al menos un mes. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Hitzarmena ez betetze arrazoi batengatik hausten bada, sortutako gastuen ordainketa ekarriko du kalte ordain gisa.

La resolución del convenio por incumplimiento, dará lugar a la indemnización de los gastos ocasionados.

**Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.**

**Undécima.- Régimen e interpretación del convenio.**

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sorrarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, 40/2015 legea bete beharko da.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek sinadura elektronikoaren bidez formalizatzen dute hitzarmen hau, eta emandako azken sinaduran adierazitako egunean burututzat jotzen da ondorio guztietarako.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, las partes intervinientes formalizan el presente convenio mediante firma electrónica, entendiéndose perfeccionado a todos los efectos en la fecha indicada en la última de las firmas emitidas.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA**

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS DE LA DIPUTACIÓNFORAL DE GIPUZKOA,**

D. **José Ignacio Asensio Bazterra** jauna

SINAC5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30

| PASAIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE PASAIA | AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL AÑARBE |
|---|---|
| Dña. **Izaskun Gomez Cermeño** andrea | Dña. **Jaione Hervás Sáez de Arregi** andrea |

**URAREN EUSKAL AGENTZIA**
**AGENCIA VASCA DEL AGUA**

D. **Antonio Aiz Salazar** jauna



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30**
*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:* ***https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks***
*Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | Convenio Saneamiento Donibane para firma |
| **CSV/EKS:** | SINAc5d900b3-d37a-4a91-a742-e43112bcdc30 |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G
Data / Fecha: 2023/05/19 08:55:55

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 15999088N MIREN JAIONE HERVAS (R: Q2000533F)
Data / Fecha: 2023/05/19 11:32:26

Sinatzailea 3 / Firmante 3: 15980525X IZASKUN GOMEZ (R: P2006900A)
Data / Fecha: 2023/05/26 09:50:56

Sinatzailea 4 / Firmante 4:
ASENSIO BAZTERRA, Jose Ignacio
Data / Fecha: 2023/05/30 17:37:24